

10

zaila

Mendiko bizikletari adituei zuzendutako ibilbidea. Xoldokogaina mendiko igoera gogorra eta zaila da. 507 puntutik eta Xoldokogainetik jautsiera eta aintzira gaineko zeharkatzea oso teknikoak dira.

EROEN JAUTSIERA ibilbidea



D URRUÑA (abialekua)
Ibardingo lepoko aparkalekua

3:00

16,5 km

500 m



Zeharkatutako herriak
URRUÑA • BIRIATU • HENDAIA

Zailtasun berezia
Ibilbide hau ez da itzuli bat. Bigarren ibilgailu bat aurreikusi.

Ibilbideko puntuak

D 606605-4796015 Ibardingo lepoan, bentetatik pasatzen den bidea hartu eta gain-ganean dena gibelean utzi. Horren ondotik, GR®10 ibilbidea hartu 507 puntu altimetrikoraino **1** 605399-4796253. Jautsi Xoldokogainako aintzirantz (I-M) oihan bazterretik. Heltzean, Munoa mendiko zapalda, ezkerrera egin (H-M) talweg zenbaitzu zeharkatzen duen bidexka batera eta ondotik hartu Pittarreko lepora **2** 604061-4796833 eramaten duen pista. Ez hartu GR®10 bidea eta Osingo lepora eramaten duen eskuineko bidean egon (I). Eskuinean den bidexka bat hartu (I), batzuetan pista bilakatzen dena. Hau oso maldatsua da eta Xoldokogainako gailurrera **3** 603641-4797847 heltzen da. Tontorretik, itsasorantz joan. Bidexka gero eta maldatsuago da, sakona eta harritsu. Iparrerrantz makurtzen da Kalbario mendirantz. Aski maldatsua den pista bat hartu eta ezkerretik saihestu (I-M). Bide hertsu batera heldu. Larretxekoborda auzora iristean **4** 603015-4799415, eskuin hartu (I) jautseko eta ondotik ezkerrean (I-M) A63 autobidea zubi batetik zeharkatzeko. Segitu A63 autobide bazterrean. Pixkat beherago GR®10 eta «Prestuen jautsiera» **5** 602115-

4799618 ibilbidera iritsiko zarete. Hortik aitzina, GR®10 ibilbidearen balizamendua segitu. Eskuinera itzuli (H-IM) RD810 errepidera igotzeko **6** 601751-4800406 eta hau zeharkatu. GR®10 segitu hiriko sartzea arte **7** 600487-4801498 eta ezkerrean itzuli (M). Errondenea eta Biantenea bidexketatik pasa, Beltzenea karrika segitu eta Leclerc Jenerala bulebarra Hendaiaiko hondartzaraino joan **8** 599316-4803010.



ZURE IBILALDIA ONGI HAUTATU

Mailak eta balizamendua

 **Gainbehera:** ibilbide bakoitzarentzat igoera guzien emaitza seinalatua da.

 **Iraupena:** ibilbide bakoitzaren iraupena emana da adierazgarri gisa. Ibilbidearen luzetasuna, gainbehera eta izan daitzekun zailtasunak kontuan hartzen ditu baina ez ditu kontuan hartzen pausak.

Mailak

Ibilbide desberdinak zailtasunaren arabera sailkatuak dira eta kolore kode batekin desberdinduak.

 ▶ Bide zabala eta ibilerraza. Publiko guzietan zuzendua, paseo bizikletez egin daiteke.

 ▶ Bidexka teknikoa. Bizikletari adituak zuzendua, beharrezkoa da teknikak jabetzea.

 ▶ Bide aski ibilerraza. Mendiko bizikletaz noiztenka ibiltzen direnentzat egokia.

 ▶ Bidexka biziki teknikoa. Maila konfirmatua dutenei zuzendua, teknikoki eta fisikoki.

Balizamendua

balizamendua segitu bide egokian egoteko!

 Norabide egokia

 Kasu arriskua

 Ezkerrera itzuli

 Lotura

 Eskuinera itzuli

 Norabidea
 Beste itzuliak ibilbide honetan

 Norabide txarra



Bidexken seinaletika edo balizamendua

GPS ibilbideen koordinatuak

Erreferentziatzeko forma
hemen, hau da:
WGS - UTM 30 T
GPS ibilbideak deskargatu:
www.terreetcotebasques.com



 **TERRE & CÔTE BASQUES**
PAYS DE SAINT-JEAN-DE-LUZ - HENDAYE

MENDIKO BIZIKLETA KODEA

Aholkuak

- ▶ Hartu balizatuak diren bidexkak zure segurtasunarentzat eta errespetatu ibilbideen noranzkoa.
- ▶ Zure ahalak ez soberetsi eta zure abiaduraren jabe egon egoera guzietan (mendiko bizikleta).
- ▶ Zure segurtasunerako, ez ahanzi zure kaskoa.
- ▶ Zure mendiko bizikletaren egoera kontrolatu eta konpontzeko osagarriak aurreikusi.
- ▶ Aurreikusi hornigaiak, edariak eta jantzi egokiak.
- ▶ Arretaz ibili eta izan adeitsuak ibiltariak aurreratzean edo gurutatzean.
- ▶ Bizikletariak badaki oinezkoak lehentasuna duela eta errepide-kodea errespetatzen du.
- ▶ Leku pribatuak eta laborantza eremuak errespetatu, hesiak hetsi.
- ▶ Laborantza eta oihangintza tresnei kasu eman, ez trahatu hauen ibiltzea.
- ▶ Ez nahasi basabereen lasaitasuna.
- ▶ Ez bildu lore, fruitu eta perritxikorik.
- ▶ Ehiza garaian, kasu ehizaldiei eta usotegiei.
- ▶ Zure hondarkinak atxiki, diskretua izan eta ingurumena errespetatu.
- ▶ Bakarrik baldin bazoaz, zure ibilbidea jakinarazi zure hurbilekoei.
- ▶ Zure ibilaldian, bitxikeria ttikiena ikusten baduzu, Turismo bulegoari jakinarazi.
- ▶ Zure ateraldiak aberasteko, ez duda eta profesionalekin harremanetan sartu.

▶ Eguraldia 08 92 68 02 64 edo 3250 ▶ Larrialdietako europar deia 112
Edo www.meteofrance.com

Kasu!

Uso ehiza sasoian (urritik azarora), ehizaldi garaietan (urte osoan) eta lur-erretze garaietan, ibilbide batzuk saihestu behar dira (abendutik martxora).
Turismo Bulegoetan xehetasunak lortu.

Zure iritzia gure ibilbideei buruz

Eco-veille® Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz eginak izan dira. Gure bideen egoerari buruz zure inpresio eta oharrek interesatzen gaituzte, baldintza onetan atxikitzea ahalbidetzen digutelako. Eskatzen dizugu Ecoveille fitxa bat betetzea (turismo bulego batean) edo deskargatzea www.rando64.com - webgunean, Ecoveille atalean.

Zure oharrak helaraz diezaiokezu Hego Lapurdiko Hiriguneari (05 59 48 30 85).

www.rando64.fr

oinez, mendiko bizikletez edo zaldiz, Bearna eta Euskal Herria deskubritu!